Irungo euskarazko hamabostekaria

# Irunero 431

*Urriak 15, 2022*

## Ostomila txotxongiloek istorio asko dituzte kontatzeko

Argazkia: Estudio Gover

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Euskara arloaren egitasmoak
5 Baserritar jantziak
6 Ostomila txotxongiloak
7 Caser Residencial
8 Kirolak: Errugbia
9 Kirolak: Sara Villasante
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Gazteartean beka
14 iGazte
15 Agenda

Bidasoa Formación

- HIZKUNTZAK (Ingelesa, frantsesa, euskara)
- ESKOLA LAGUNTZA

Talde txikiak eta banakako klaseak

Matrikula doan

Eliza Kalea 4 IRUN (San Juan plazan) 688 889 547 - info@bidasoaformacion.es

## ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1922ko urriaren 22an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak duela 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak islatzen ditu. Aldizkariko lehen idatzian Justiniano kronikagileak garai hartako neska-mutilen heziketa txarra salatzen du, horretarako, eskolatik irtetean katu bat harrikatu duten neska-mutil batzuez baliatu da. X. kolaboratzaileak Irungo ospitalean gertatutako istilu baten berri emateko bi pertsonaren arteko elkarrizketa erabiltzen du. "De todo un poco" atalean kronikagileak azken hilabeteetan hiriaren gaurkotasunarekin lotuta egon diren gaiak errepasatzen ditu, hala nola, medikuen auzia, kirol zelaiaren eraikuntza eta paduren saneamendua. Lehen orrialdea "versos románticos" atalarekin amaitzen da, "Rosa de gratitud" bertsoekin.

Bigarren orrialdearen hasieran, ohikoa denez, kirol nobedadeak errepasatzen dira. Batetik, Reala eta Athleticek jokatutako partiduko jokaldiak aipatzen dira. Bestetik, Real Unión-en hurrengo partiduak non eta noiz jokatuko diren jakinarazten da. Azkenik, txapelketa erregionalen hasiera aipatzen da. "Lasarte´ko erromeriyua" tituluarekin J.L. kolaboratzaileak Lasarten erromeria egun bat nolakoa den kontatzen du bertsotan. "Por ahí" atalean hainbat albiste labur irakur daitezke, hala nola, karraskariek trenez garraiatutako merkantzietan eragiten dituzten kalteei buruzkoak.

Hirugarren orrialdearen hasieran Jose Joaquin Oruezabal Michelenaren heriotza jakinarazten da, bere bizitza errepasatzen duen idatzi baten bitartez. Satarrka kolaboratzaileak, berriz, Gernikako Zuhaitzari buruzko bertsoak argitaratzen ditu. "En el Municipio" atalean azken udal bilkurako gaien laburpena ageri da. "Noticias" atalarekin amaitzen dira aldizkariko edukiak.

**Argazkia:**

**38452:** Santiagoko eta inguruko ontziralekua, Patronatuaren frontoia, Junkaleko eliza, Aiako Harria... Irudia 1916 baino lehenagokoa da.

**38631:** Lehen planoan, Stadium Gal futbol zelaia eraiki zen lursailetan, besteak beste, soroak eta padura ikus daitezke (eszena 1906a baino lehenagokoa da).

**38719:** Irungo Ospitaleko kirurgia gela 1910-1914 urteen artean.

**IRUNERO**

**Erredakzioa eta maketazioa:**
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

**Administrazioa:**
Joseba Arozena

**Zuzenketa:**
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

**Publizitatea:**
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

**Diseinua eraberritzea:**
Andrea Gomez Arocena

**Inprenta:**
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

**Argitaratzailea:**
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

**ISSN:** 1134-0606

**Lege gordailua:** SS-230-94

**Tel:** 943042052

**Webgunea:** irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

# Datozen hilabeteetan Irunen ekintza ugari egingo dira Euskaraldiko parte-hartzaileak aktibatzeko

**2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra Euskaraldia ariketa soziala Euskal Herri mailan egingo da, baita Irunen ere. Hortaz, euskara dakiten eta ulertzen duten irundarrek hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimena egingo dute "Euskaraldia! Hitzez ekiteko garaia" lelopean. Irunen Euskaraldia dinamizatzeko hainbat ekintza egingo dira datozen hilabeteetan.**

Aurten ere, Irungo herritarrek eta entitateek ariketan parte hartzeko aukera izango dute: ahobizi edo belarriprest rolen konpromisoak hartuz, edota ariguneak sortuz. Entitateek maiatzetik dute aukera izena emateko, eta urriaren 31ra arte egin ahal izango dute inskripzioa. Norbanakoen izen-ematea, aldiz, irailaren bukaeran ireki zen, eta ariketa hasi arte egongo da zabalik. Izen-ematea, norbanakoena zein entitateena, www.euskaraldia.eus webgunearen bidez egin daiteke.

**Kultur ekimenak nagusi**

Euskaraldiaren aurreko asteak girotzeko eta izen-emateak sustatzeko, hainbat ekimen antolatu ditu Udalak, Irungo Euskaraldiaren talde eragilearekin eta hiriko beste zenbait ezagunekin batera. Esaterako, ariketa bukatu arte Euskaraldiaren totema auzoz auzo ibiliko da, egitasmoari buruzko informazio praktikoa zabalduz. Horrekin batera, lehiaketa bat jarriko da martxan sare sozialen bitartez. Parte-hartzaileek selfie bat igo beharko dute Euskaraldiari buruzko esaldi batekin. Lehiaketan parte hartzeko argitalpenean #Irunenizangaitezen traola eta Irungo Udalaren eta Irungo Euskaraldiaren sare sozialak etiketatu behar dira. Lehiaketa amaitzerakoan zozketa bat egingo da, eta irabazleak liburu sorta bat eta Bidasoko Hitzako urtebeteko harpidetza irabaziko ditu.
Urriaren 26an Euskaraldiari buruzko informazioa emateko eta proposamenak jasotzeko, Batzar irekia egingo da. Bilera arratsaldeko 18:30ean izango da Palmera Montero gunean.

Azaroaren 5ean, larunbatean, Euskaraldia Gune Ibiltariak geldialdia egingo du Zabaltza Plazan arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Bertan izena emateko eta txapa jasotzeko mahaia, Euskaraldiari buruzko ihes gela eta Klaun-In elkartearen eskutik kale animazioa izango dira.

**Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat**

Euskarazko jardueren egitarauak jarraipena izango du, baita ere, behin Euskaraldia hasi eta Euskararen Nazioarteko Eguna bitartean. Beraz, irundarrek kultur ekimen ugariz gozatzeko aukera izango dute.

Azaroaren 18an, 19:00etatik 20:30era, Bertso-pintxo ekimena egingo da, San Juan Plazatik Urdanibia Plazara. Bertsozaleak eta pintxoak elkartuko dituen ekintzan Sustrai Colina eta Alaia Martin bertsolariek parte hartuko dute. Azaroaren 24an, 19:00etan, Erik eta Win antzezlana eskainiko da Amaia Kultur Zentroan. Azaroaren 25ean, 18:00etan, Amaia Kultur Zentroan "Kantu Kolore: Peru krokodiloa" ikuskizuna izango da haurrentzat.

Abenduaren 1ean goizez, Mintzodromoa izango da Hendaian. Egun bereko arratsaldean 19:00etatik aurrera "Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi" antzezlana eskainiko da Amaia Kultur Zentroan.
Azkenik, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Benta Zaharreko Mutiko Alaien emanaldia izango da eguerdiko 12:00etan hasita. Taldea Urdanibia Plazatik abiatuko da eta Luis Marianoko ingururaino iritsiko dira musikariak.

**Irunera egokitutako kanpaina**

Berrikuntza modura aipatu, aurtengo ediziorako Irunera egokitutako kanpaina bat diseinatu duela Euskaraldiaren talde eragileak. Kanpainak helburu argi bat dauka: irundarrek irundarrentzat zabaltzea Euskaraldiaren mezua, egitasmoari tokiko kutsu handiagoa emanez.

Era berean, Irungo Euskaraldiarentzat lelo propioa proposatu du talde eragileak: Irunen bagara, zu ere bazara, izan gaitezen! Totem ibiltariak jasoko du lelo hori, baita herrian zehar jarriko diren ehunka kartelek ere.

Bestetik, Irungo pertsona ezagunek Euskaraldiari buruzko bideoetan edota karteletan parte hartu dute, egitasmoari beren babesa emanez: Iñigo Lavado sukaldaria, CD Bidasoako Gurutz eta Julen Aginagalde anaiak, Itziar Sistiaga idazlea, Deperita Frutadendako Victor Ortega, Teresa Errandonea atleta olinpikoa, Ana Perez eta Patxi Perez aktoreak, marrazketa eta pintura eskolako Maria Maldonado, Susana Hernandez ileapaindegiko Olatz Zabaleta, Marrubiko Mikel Castro, Koldo Salinas eta Shole Aguirre gozogileak, eta Sargia Tabernako Joseba Lopetegi.

Haiekin batera, Irungo Klaun-In elkarteko kideek Euskaraldia gizarteratzeko zenbait ekimen egin dituzte urte osoan zehar.

20 URTE ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

# Euskara arloak udan amaitutako programak baloratu eta hastear diren egitasmoak aurkeztu ditu

**Euskara arloak uda honetan abian jarritako egitasmoen balorazioa egiteaz gain, ikasturte hasierarekin batera martxan jarriko diren programa berriak aurkeztu ditu. Balorazioan Solas Jolasek, Udagirok eta errefortzu eskolek izandako harrera ona aipatu da. Aurkezpenean berriz, Familia Ola eta Haurrak Parkean programen edizio berriak aurkeztu dira.**

2022ko udan normaltasun kutsua berreskuratu dute Euskara arloak antolatutako programek. Miren Echeveste Euskara arloko ordezkariak aipatu duenez, pandemiak eragindako murrizketen ondorioz bi urte zail igaro ostean, plazera izan da Solas Jolas udalekuak eta Udagiro tailerrak "normaltasun osoz" eskaintzea. "Tokiak bete egin dira, txangoez gozatu dute, gure lurraldeko beste leku batzuk erakutsi zaizkie Irungo haurrei, eta, Euskara arloan, sentitu dugu oso harrera bikaina izan dela", azaldu du Euskara ordezkariak.

Itsaso Baquedano Hezten (lehen Urtxintxa) enpresako arduradunak Solas Jolas programari buruz azaldu du "haurrak eta hezitzaileak pozik gelditu direla udak emandakoarekin". Aurten, pandemia aurretik bezala, txanda bakoitzeko hiru irteera egin dira, pandemiaren aurreko zifra berreskuratuz. Hernaniko igerilekuak, kayak jarduera Donostiako badian, paddle surfa Hondarribian edo Aiako Iturraran parketxea izan dira, besteak beste, jardueretako batzuk. Era berean, Miren Echevestek azpimarratu du gurasoekin egindako informazio-bilera lehen aldiz euskara hutsean egin zela. Bileran aldi bereko itzulpen-zerbitzua eskaini zen bilkura gazteleraz jarraitu nahi zutenentzat, nahiz eta gehienek ez zuten zerbitzua behar izan.

Aurtengoa amaituta, Euskara arloa 2023ko Solas Jolas prestatzen hasi da ahalik eta udaleku onenak eskaintzeko. Horiek horrela, datorren urterako eskaintzak izango dituen nobedadeak iragarri ditu Josebe Araña Euskarako teknikariak, zera adieraziz, datorren urtean behar bereziak dituzten haurrentzako eskaintza zabalduko dela. Bide batez, hausnarketa prozesu bat abiatu dute Solas Jolas udalekuetan jangela zerbitzua edo haurtzaindegi zerbitzua eskaintzeak, haurrek janaria etxetik eramanda, nolako harrera izango lukeen aztertzeko. Horretarako, aurtengo edizioan parte hartu duten haurren gurasoen artean galdetegi bat zabaldu dute jangela zerbitzuak edo eguerdiko zainketa zerbitzuak izango lukeen eskaeraz galdetu eta etorkizunean eskaintzea errentagarria ote litzatekeen aztertzeko.

**Udagiro eta errefortzu ikastaroak**

Udagiro eta euskarako errefortzu eskolak izan ziren Euskara arloaren udako beste bi proiektu nagusiak. Udagiron beste herrialde edo erkidego batzuetatik hirira heldu diren gazteekin lan egin da jarduera ludiko eta dibertigarrien bidez euskara gehiago erabiltzeko. Programa 2007an hasi zen eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. Mailako eta Bigarren Hezkuntzako maila guztietako ikasleek parte hartzen dute. Aurtengo udan eskainitako 6 taldeetako toki guztiak bete dira, hau da, uztailean eta abuztuan egindako 3 taldeak.

Euskarako errefortzu eskolen programari dagokionez, 2020. urtean jarri zen abian, urte horretan ikastetxeetako aurrez aurreko eskolak eten egin baitziren, kutsadurak saihesteko. Aurtengo udan 10 talde osatu dira: 3 uztaileko eta abuztuko lehen hamabostaldian, beste 3 uztaileko bigarren hamabostaldian eta talde bakarra abuztuaren bigarrenean. Aurtengo udan errefortzu eskolak erronka berezia izan du, epez kanpo iritsitako Ukrainiako haurrak jaso dituelako.

**Hastear diren jarduerak**

Udako balorazioak amaituta, Familia Ola eta Haurrak Parkean programetan hurrengo asteetarako aurreikusitako jardueren berri eman dute.

Familia Ola programaren helburua familien artean euskararen transmisioa sendotzea da, 2 eta 8 urte bitarteko haurrak dituzten familientzako jarduerak eskainiz. Aisialdiko jarduerak eskainiz, helburua ikasgeletatik haratago euskararen erabilera sustatzea da. Horrela, sukaldaritza tailerrak, eskulanak, txangoak eta abar dira aurreko ikasturteetan eskaini diren jardueretako batzuk.

Ildo horretatik, Euskara Arloak azaroko tailerretarako programatutako proposamenak iragarri ditu. Azaroaren 15ean eta 17an Gorputz adierazpen tailerra egingo da 17:30etatik 19:00etara. Aste horretako igandean, azaroaren 20an 11:00etatik aurrera Donostiako Aquariuma bisitatuko da. Azkenik, azaroaren 22an eta 24an 17:30etik 19:00etara ekintzak ilustratzeko tailerra zuzenduko du Jone Taberna artistak.

Tailerretan parte hartzeko izen emate epea urriaren 19an irekiko da eta 30ean amaituko da. Izen ematea Irungo Udalaren webgunearen bitartez egin behar da eta parte hartzeko beharrezkoa da Irunen erroldatua egotea edo Irungo ikastetxe batean matrikulatua egotea.

Bestalde, Haurrak Parkean ekimenaren bidez, Udalak euskaraz jolasteko baliabideak eskaini nahi dizkie familia eta haurrei herriko hainbat auzo eta jolasgunetan. Horrela, parkeetan haurrek, familiak eta zaintzaileek euskaraz jolasteko ohitura hartzea bultzatu nahi da. Bertaratzen diren haurren adinaren arabera, bi talde eratzen dira, 3 eta 5 urte bitarteko haurrekin eta haien zaintzaileekin jolasak eginez, familiako hizkuntza transmisioa eta aisialdia uztartuz. 6 eta 9 urte bitarteko haurrekin, aldiz, jarduera lagunen artean egingo da, bi hezitzailerekin batera.

Haurrak Parkean egun eta jolasgune ezberdinetan egingo da. Edizio honetarako aukeratutako lehen jolasguneak Nagore Laffage parkea eta Partxis parkea dira eta urriaren 19an eta 26an eta azaroaren 2an eta 9an egingo dira jarduerak bertan. Euria eginez gero jolasak jolasgune horietako aterpeetan egingo dira. Urriaren 21ean eta 28an eta azaroaren 4an eta 11n berriz, jolasak Katea auzoko Arbiun plazatxoko frontoi estalian eta San Juan plazan egingo dira. Euria egitekotan, San Juan plazako jolasak udaletxeko arkupetan egingo dira.

# Baserritar jantzien prestaketa Gabonen aurretik hasten da

**Conchy eta Ana Vergara ahizpak lehenik eta behin odolak lotzen ditu, baina afizio partekatua ere badute: josketa. Orain dela 10 urte hasi ziren elkarrekin proiektu partekatu batean eta baserritar jantzien sorreran espezializatu dira. Vergara ahizpek azaldu dutenez inguruko herrietan antolatutako azokak dira beraientzako erakusleiho nagusiak, beraiek egindako jantzi bakar eta originalak erakusteko.**

**Nolatan erabaki zenuten jantzi hauen sorreran espezializatzea?**
**Conchy:** Nik betidanik josi izan dut. Pixkanaka gero eta baserritar jantzi gehiago egiten hasi ginen eta horrela artisau azoketan parte hartzera animatu ginen. Anak puntuzko gauzak egiten zituen eta nik bestelako jantziak, beraz, bion lana bateragarria zela konturatu ginen. Elkarrekin gero eta gauza gehiago egiten hasi ginen eta honaino iritsi gara.

**Nola antolatzen zarete?**
**Ana:** Nik puntuz egindako gauzak egiten ditut, hau da, tokillak, kaikuak eta antzeko gauzak. Nire ahizpa berriz, jantzigintzan zentratua dago eta gonak, blusak, mantalak, galtzak, alkandorak eta bestelakoak egiten ditu.

**Jendeak oraindik, data jakin batzuetan bada ere, baserritarrez janzteko ohiturari eusten dio?**
**Ana:** Azken urteetan baserritarrez janzteko ohitura handitu egin dela esango nuke. Izan ere, lehen haurrak bakarrik janzten ziren eta ikastolara eramateko zen. Orain, ordea, data berezietan jende heldua ere baserritarrez janzteko ohitura hartzen ari dela dirudi. Ez dakigu inbidiarengatik den edo ohiturari eusteagatik.

**Conchy:** Hainbatetan gertatu izan zaigu lehenengo gurasoak haurrarekin etortzea jantzia egiteko eta gerora gurasoak ere animatzea baserritar jantzia egitera, haurrak bakarrik jantzi ez daitezen.

**Urria baserritar arropa prestatzen hasteko goizegi dela eman dezake, ezta?**
**Ana:** Egia esan urte osoan zehar egiten ditugu baserritar jantziak, baina urrian hasten da guretzat lan karga handieneko garaia. Orain hasten gara enkargu gehienak jasotzen.

**Zer egin behar du jendeak zuek egindako baserritar jantzi bat lortu nahi badu?**
**Conchy:** Jendeak parte hartzen dugun azoken bitartez ezagutzen gaitu batez ere. Azoketan jendeak gure lana gertutik ikusteko aukera du eta zerbait berezia nahi badu, neurrira eta gustuaren arabera egindako jantziak ere egiten ditugu.

**Eskuz egindako jantziak izanda, bakarrak eta bereziak dira?**
**Conchy:** Bai, noski. Ez dituzu guk egindako bi jantzi berdin topatuko, guztiek zerbait ezberdina dute.

**Zer da egun jendeak gehien eskatzen duena?**
**Ana:** Egia esan eskaerak askotarikoak dira, bakoitzaren nahiak desberdinak diren aldetik. Esaterako, kaikuen kasuan alde gutxi dago, kolorea kenduta, forma aldetik oso antzekoak baitira. Jantzien kasuan berriz, estilo asko daude eta aldaketa asko onartzen dituzte.

**Conchy:** Bereziki nabaritu dugu orain haur bat jaiotzen denean jendea jaioberriarentzako baserritar jantzia oparitzeko ohitura hartzen ari dela. Izan ere, azkenaldian horrelako eskari asko jaso ditugu.

**Baserritar jantzien kasuan ere nabaria da moden eragina?**
**Conchy:** Bai, izan ere, lehen ohiko baserritar jantzi beltza erabiltzen zen bakarrik. Orain aldiz, kolore eta estanpatu askotako jantziak ikusi daitezke eta, hain zuzen ere, hori da jendeari atentzioa ematen diona.

**Baloratzen al ditu jendeak jantzi horien atzean dauden lan ordu luzeak?**
**Conchy:** Denetarik dago. Azoketan parte hartzen dugunean batzuetan jendea postura hurbiltzen zaigu gure lanarengatik zoriontzeko, nahiz eta erosteko asmorik ez izan, baina lana ikusiz gozatzen dute. Beste batzuentzat ordea, oihal puska bat zatitzea eta jostea bezain erraza da.

**Zein azoketan parte hartu ohi duzue?**
**Ana:** Inguruko hainbat azoketan parte hartzeko ohitura dugu. Aurten adibidez azoka hauetan parte hartzeko asmoa dugu: urriaren 23an Beran, Lurraren Eguna ospatzen baita. Urriaren 27 eta 28an, berriz, Elizondoko ferian izango gara, azaroaren 18an Donezteben eta azaroaren 24an Lesakan. Guretzako data bikainetan egiten dira horiek, Gabonen aurretik.

**Jendeak asko berritzen ditu baserritar jantziak?**
**Conchy:** Baserritar jantzia ez da urtero erosten den zerbait, baina egia da batez ere haurren kasuan eskaria handiagoa dela, azkarrago aldatzen baita beraien gorputza. Gure bezero askori hainbat baserritar jantzi egin dizkiegu jada, ia jaio zirenetik eta handitzen joan diren heinean. Gainera, bezero finkoak dituzunean beraien gustuekin asmatzea errazagoa da.

**Zenbat denborarekin eskatu behar dira neurrira egindako jantziak?**
**Ana:** Enkargua ahal bezain laster egitea gomendatzen dugu beti, horrelako jantzien sorrerak denbora asko eskatzen baitu. Esaterako, denbora asko behar da kaiku bat egiteko, tartean gerta daitezkeen ezustekoak kontuan hartu gabe.

**Orain orokorrean etxeetan josteko ohitura murriztu dela nabaritu duzue?**
**Ana:** Ez pentsa. Badirudi jende gaztea josteko ohitura berreskuratzen hasi dela, batez ere, pandemiaren ostean.

**Conchy:** Guk bereziki nabaritu dugu pandemiak ferietan parte hartzeko aukera kendu digula. Orain, berriz, eskaria asko handitu da, bi urteren ostean haurrei batez ere jantziak txiki geratu zaizkielako.

**Nola aurreikusten dituzue aurtengo Gabonak?**
**Ana:** Lehen enkarguak jasotzen ari gara. Nik, bertako jendearen eskariez gain, Altsasu bezalako toki urrunagoetako eskariak jasotzen hasi naiz. Beraz, badirudi jendea Gabonetara begira gogotsu dagoela eta festa eta ospakizunerako gogoa duela.

# Ostomila konpainiak txotxongiloen izpiritua eta artea zabaltzen jarraitzen du

Argazkia: Estudio Gover

**Ostomila konpainia irundarrak txotxongiloak lantzeko eta zabaltzeko izpirituari eusten dio. Adierazpen artistikoaren forma bat izateaz gainera, Ruben Mejutoren eta Zoa Tamara Cuellarren bizimodua dira. Elkar ezagutu ostean, tandem bat osatu eta munduan barrena mugitzen dira beraien istorioak leku urrunenetara eramateko.**

2015ean elkartu ziren bi artista hauen bideak. Urte horretan Ruben Mejutok Nikaraguarako bidaia bat egin zuen eta bertan ezagutu zuen Tamara. Ruben Mejutok onartu duenez, “ez dakit nola iritsi nintzen bere etxera, baina bertan emanaldi bat prestatzen ari ziren musikari, artista, zirku artista eta txotxongilariekin topo egin nuen”. Ruben betidanik egon da musikaren munduarekin lotua. Tamararen etxean UNESCOk gizarte ondare immaterial gisa errekonozitutako “El Gueguense” obraren prestaketa lanen lekuko izan zen eta hori izan zen txotxongiloekin izandako lehen harreman estua.

Tamara Cuellar berriz txotxongiloz inguratua bizi izan da beti, nahiz eta 18 urteak bete arte ez zitzaion txotxongiloekiko interesa piztu. Horrela erabaki zuen Kuban arte eszenikoekin lotutako Kritika eta Antzerki Ikerketak ikastea. Nikaraguara itzultzerakoan bere proiektu pertsonala gurasoen txotxongilo proiektuarekin tartekatu zuen Ruben ezagutu zuen arte. Elkarrekin bi hilabete egin ostean, txotxongilo emanaldiak egiteko proiektua sortzen hasi ziren. Hasiera batean Rubenek pianoa jotzen zuen bitartean Tamara antzezle lanetan aritzen zen bakarrik. Tamara Cuellarrek azaldu duenez, Ruben oso pertsona urduria da eta pixkanaka ikuskizunetan txotxongiloak lapurtzen hasi zen eta bere kontura inprobisaziorean bat egiten. “2016tik aurrera, proiektua formalizatu genuen, eta bien artean zerbait berria sortu genuen”, adierazi du Tamarak.

### Sakrifizioaren edertasuna

Txotxongilolaria izatea ordea, ez da hautu erraza. Tamara Cuellarren hitzetan, “ez dut uste edonor txotxogilolari izan daitekeenik, izan ere, arte eszenikoen artean okerren baloratutakoa da”. Izan ere, txotxongilolari nikaraguarrak azaldu duenez jendeak ez dio txotxongilogintzari merezi duen garrantzia aitortzen. Txotxongiloekin beste arte motekin gertatzen ez den urrunketa bat gertatzen da. “Txotxogiloek gauzak zure ordez esaten dituzte, ez zara zu zuzenean hitz egiten duena”, azaldu du Tamarak. Betidanik txotxongiloak oso teknika politzatua izan dira eta horrela azaltzen du Cuellarrek txotxongiloek eta txotxongilolariek historian zehar jasandako zentsura.

Ruben Mejutok ere perspektiba historikotik hitz eginez botereari egindako burlari lotua ikusten du txotxongiloen mundua. Horretaz gain, antzerki tradizionala iritsi ez den lekuetara iristeko gaitasuna ikusten die Mejutok txotxongiloei. “Antzoki nagusietan obra handiak antzezten diren bitartean, txotxongilolariek antzezpen beraren interpretazio bat eraman dezakete auzo txiroetako kaletara zein plazetara”. Funtsean, jende txiroari kulturaz gozatzeko aukera ematen die.

Hau guztia gutxi balitz, txotxongiloek publiko guztietara iristeko aukera ematen dutela azaldu du Tamara Cuellarrek. Txotxogilolariak azaldu duenez: “haurrentzako funtzioak egin arren, helduentzako mezuak eta ideiak txertatzen ditugu gure ikuskizunetan”. Beraz, ikuskizunetan haur zein helduek kulturaz gozaraztea lortzen du Ostomila taldeak. Tamara Cuellarrek plazetan eta kaleetan egiten diren emanaldiak bereziki atsegin dituela onartu du, oso dibertigarria baita eta barre asko eragiten baitu. “Txotxongiloak kalera ateratzen dituzunean kultura askotan iristen ez den lekuetara ailegatzea lortzen duzu”, erantsi du nikaraguar artistak.

Dena dela, txotxongilolari izateak ardura eta jakin beharreko asko dakartza karguarekin batera. Oro har, txotxongilolariak denetatik jakin behar du apur bat emanaldiak aurrera atera ahal izateko, ez soilik antzezpenaz. Ia egunero, funtzioen aurretik edo ostean, margolari, dekoratzaile, gidoilari, jostun, argi eta soinu teknikari, komertzial eta ikus-entzunezkoen arduradun lanak egin behar dira, tartean suertatu daitezkeen ezustekoez gain. Ruben Mejutok aipatu duenez, “txotxongilo ikuskizun bat ikusten duzunean % 5a ikusten duzu bakarrik, gainontzeko guztia ere egin egin behar da”. Dena dela, Gipuzkoan esaterako ez dago txotxongilo talde askorik, beraz, gogor lan eginez gero funtzioak lortzeko aukera asko dago bestelako artistekin alderatuta.

### Haurren zintzotasuna

Txotxongilo emanaldietan haurrak dira ordea publiko zintzoena. Ruben Mejutok adierazi duenez, haurrek ikuskizuna gustuko badute adi-adi ikusiko dituzu, bestela ez dute ezinegona edo asperdura agerian uzteko arazorik izango. Era berean, Tamarak azaldu du publiko txikiaren artean jarrera guztiz ezberdina dela herrialdearen arabera. Nikaraguar artistaren hitzetan, “hemen egiten ditugun emanaldietan haurrak geldirik egon ohi dira eta gurasoek ez diete ezer ukitzen edo hemendik hara ibiltzen uzten”. Latinoamerikan egiten dituzten emanaldien giroa guztiz bestelakoa izan ohi da. “Haurrak solteago dabiltza orokorrean, gurasoen hainbesteko kontrolik gabe eta beraz emanaldi baten erdian edozer gerta daiteke”, gaineratu du artistak.

### Formatu txikian eta euskaraz

Munduan barrena ibilita ere, Ostomilako taldeak irmoki eusten dio euskara eta euskal kultura zabaltzeko konpromisoari. Ruben Mejutok haurrentzat kalitatezko euskarazko edukiak sortzeak duen garrantzia azpimarratu du: “ikus-entzunezkoen munduan dena dago gazteleraz eta guri kosta egiten zaigu gure alabentzako euskarazko edukiak topatzea”. Horregatik, jende euskalduna euskarazko edukiak sortzera animatu du, udaletan zein instituzioetan horrelako produktuen eskari handia dagoela baieztatuz.

Ostomilak aurten txotxongiloak euskal eremuko herri txikietara eramateko proiektua garatuko du. Tamara Cuellarrek aipatu duenez, “herrietara iristeko ahalegin berezia egingo dugu, beraiek ere eskaintza kulturala eskura izatea merezi dutelako”. Dagoeneko lortu dituzte 13 herritan emanaldiak, adibidez Aia, Aduna, Ormaiztegi eta Berastegin. “Antzerki konpainia handiek aurrekontu garestiagoak eskatzen dituzte, baina guretzat herri txikietan egin ohi zaigun harrera onak bikoitza balio du”, adierazi du Cuellarrek.

# Caser Betharram Hondarribiko jaien ospakizunean murgildu da iraila hasieran

**Caser Residencialek jardunaldi sozio sanitarioa antolatu du etorkizuneko erronka berriez hitz egiteko. Ekintza urriaren 5eko goizean zehar egin zen Hondarribiko Itsas Etxean. Hausnarketarako jardunaldian mahai-inguruak eta hitzaldiak egin ziren eta antolatutako ekintzez gozatu ahal izan zuten arloko profesionalek eta ikasleek, bertaratu ziren pertsona interesatu guztiez gain, jende ororentzat irekitako ekitaldia izan baitzen.**

Jardunaldia “Erronka Berriak eremu sozio sanitarioan” titulupean antolatu zen. Ekitaldia Nerea Tizón Caser Residencial Anakako zuzendariaren, Txomin Sagarzazu Hondarribiko alkatearen eta Txaro Rodrigo Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren arretako Zuzendari Nagusiaren agurrarekin hasi zen. Jardunaldia testuinguruan jartzeko aipatu zen azken urteetan bizi itxaropena %10 handitu dela eta ondorioz, gizartearentzat erronka bihurtu direla zaintza lanak eskaintzea eta zainketen eredua hobetzea.

### Adituak bildu zituen mahaia

Jarraian, eszenatokiko besaulki guztiak jendez bete ziren “Gogoeta etikoak zaintza harremanetan” izenburuko mahai-inguruarekin. Solasaldian Zorione Benedicto FGAko Gizarte Langilea eta GEHEB Batzordeko idazkariak, Vanessa Latapie Labenneko Marin egoitzako Psikologoa eta Etika Batzordeko kideak eta Manuel Millet OSI Bidasoako Etxez etxeko Ospitalizazio Unitatearen arduradunak parte hartu zuten. Beraiekin batera, Elena de la Fuente Caser Residencial Betharrameko Gizarte langilea eta GEHEBeko Batzordekidea moderatzaile lanetan aritu zen.

Mahai-inguruan zehar etika izan da hitz errepikatuenetako bat. Hizlariak etikarekin loturik etorkizunak agerian utziko dituen erronkez mintzatu ziren lehenengo. Vanessa Latapiek mugaren beste aldeko errealitatea hurbildu zuen jardunaldira, aspaldian eskubideez hitz egitetik etikaz hitz egitera pasa zirela azaltzeko. Osasun arloko langile gisa Manuel Millet medikuak, gaian aditua ez bada ere etikaren gaian oso interesatua dagoela azaldu du. “Lanean etxean inon baino hobeto leloa aplikatzen saiatzen naiz, baina beti pazientearen nahiaren arabera”, adierazi zuen Manuel Milletek etxez etxeko zerbitzuak etorkizuneko armak

**“Erabakiak ez dira soilik datu objektiboei erreparatuz hartu behar”**

**“Adina bizi kalitatearen indizean eragiten duten faktore guztien artean beste bat baino ez da”**

Diego Gracia Guillén, medikua eta jardunaldiko hizlaria

izango direla adierazi aurretik. Era berean, Elena de la Fuentek teknologiaren ahalmena aipatu bazuen ere, sistema eraginkorra izan dadin, aurrerapauso teknologikoez gain, argi utzi zuen pertsonen lanak funtsezkoa izaten jarraituko duela.

Ondoren, pertsonen hauskortasunean edo kalteberatasunean laguntzeko teknika eta baliabideez jardun ziren. Vanessa Latapieren iritziz hauskortasuna aipatzerakoan pazienteen zein senideen hauskortasunaz hitz egin behar da eta bere ustez gakoa prebentzioa indartzean dago. Zorione Benedictoren hitzetan berriz, berdintasun egoeran kokatzeak pertsonaren ahalduntzean lagunduko du. Manuel Milletek aldiz, nabarmendu zuen akonpainamenduan konpromisoak eta aurretiaz plan bat egiteak duen garrantzia.

Mahai-inguruak medikuek lagundutako heriotzaz hitz egiteko bidea ere eman zuen. Manuel Milletek gaiarekin lotutako testigantza zuzena eman zuen, legeak arloko profesionalen artean izandako harrera azaltzeaz gain, oraindik ere pazienteek sedazio aringarria eta eutanasia bereizteko zailtasunak dituztela adieraziz. Vanesa Latapiek azaldu zuen Frantzian oraindik eutanasia galarazita dagoela eta eskura dituzten beste baliabideak aipatu zituen. Zorione Benedictok aldiz, heriotza lagunduaz hitz egiteaz gain, gizartean heriotza naturalizatu eta txikitatik prozesua barneratzeko beharrean sakondu zuen.

Galderen tartean entzuleek autonomia sustatzeko aukerekin, etika eta ekonomiaren arteko talkarekin eta heriotza egunerokotasunera hurbiltzeko moduekin lotutako galderak egin zizkieten mahai-inguruko protagonistek erantzun zitzaten.

### Diego Gracia medikuaren hitzaldia

Diego Gracia Guillén medikuren hitzaldia izan zen eguneko beste ekitaldi nagusietako bat. Medikuaren hitzaldiak 5 ardatz nagusi izan zituen: autonomia, ahultasuna, kalitatea, balioak eta betebeharrak. Autonomia hitza aipatu zuen Diego Graciak adinekoekiko diskriminazioaz hitz egiteko eta horri aurre egin ahal izateko etikaren erabilera ezinbestekotzat jo zuen. Ahultasuna erantzun ahalmena murriztearekin lotu zuen Graciak, ez adinarekin. Zentzu horretan, Graciaren hitzetan “adina bizi kalitatearen indizean eragiten duten faktore guztien artean beste bat baino ez da”. Era berean, kalitatearen gaia konplexua dela onartu zuen, indize kuantitatibo eta kualitatiboa den aldetik. “Erabakiak ez dira soilik datu objektiboei erreparatuz hartu behar”, adierazi zuen medikuak. Era berean, Madriletik etorritako medikuak etika balioak ulertzen laguntzeko funtsezkoa dela azaldu zuen. Azkenik, betebeharrak aipatzerakoan, norbanako eta instituzioen betebeharrez mintzatu zen hitzaldia amaitu aurretik.

Hondarribiko Itsas Etxean antolatutako jardunaldia Caser Residencialeko Zuzendari Orokorra den Valentín García Garcíaren itxiera hitzaldiarekin amaitu zen.

# Txingudi errugbi klubari ez zaio motibaziorik falta denboraldiko erronkei aurre egiteko

**“Garaipenik gabe zaila da motibazioa lortzea”**

**“Ezin gara zelaira sartu partidua irabazia dugula pentsatuz”**

Iñigo Camarero, Zaisa Txingudi errugbi taldeko entrenatzailea

**Txingudi errugbi klubak denboraldia hasi berri du. Klubeko lehen taldea partiduen errutinan murgilduta dago jada eta Iruñako La Única taldearen aurka denboraldiko lehen garaipena lortu dute. Kategoria txikiagoetan dabiltzan klubeko taldeak ere lanean ari dira denboraldian zehar beraien onena erakusteko.**

Iñigo Camarero Txingudi errugbi klubeko lehen taldeko entrenatzaileak azaldu du lehen garaipen hau oso beharrezkoa zela taldearentzat. “Lehen jardunaldiko partidua bi punturengatik galdu genuen eta min handia eman zigun, uste baikenuen garaipena lortzeko beharrezko guztiak genituela”.

Zaisa Txingudi taldeko entrenatzaileak gogoratu duenez, aurreko denboraldia nahiko kaxkarra izan zen taldearentzat. Izan ere, Plaiaundin entrenatzen diren mutilek oso garaipen gutxi lortu zituzten. “Garaipenik gabe zaila da motibazioa lortzea”, adierazi du Iñigo Camarerok. Beraz, aurtengo denboraldiko lehen garaipenak balio bikoitza izan du taldearentzat: sailkapenean puntu bat eskuratzeaz gain, jokalarien animoan eragin positiboa izan du.

**Taldea eratzen**

Txingudiko entrenatzaileak aurreko urtean gertatutako maila jaitsieraren arrazoiak azaldu ditu: “joan den denboraldian lesio asko izan genituen taldean eta horrek zuzenean eragin zigun partiduetako joko mailan”. Camarerok aipatu du denboraldi amaieran emaitza hobeak lortu zituzten arren, ez zirela jaitsiera saihesteko gai izan. Entrenatzailearen hitzetan, “udan jokalariak berriro animatzeko lan handia egin dugu eta jokalari askok taldea utzi duten arren, berriak ere etorri zaizkigu”. Era horretan, aurten taldera itzuli diren aurpegi ezagunek asko lagundu diete, esperientzia handiko jokalariak baitira eta beteranoen maila ona nabaria da.

Denboraldia hasi den arren, Iñigo Camarerok onartu du Txingudik talde murritza duela oraindik. “Denboraldia zer luzea den kontuan izanda oraindik fitxa gutxi ditugu eta gustatuko litzaiguke jokalari gehiago lortu ahal izatea”, azaldu du entrenatzaileak. Plantilla murriztua izan arren, uste du aurreko denboraldian baino lesio gutxiago izanda denboraldi amaierara iristeko gai izango direla.

Denboraldi berriak nobedadeak ere baditu, izan ere, klubak entrenatzaile fisiko berria du. “Entrenatzaile berri honek aukera eman digu denboraldiaurrea ondo prestatzeko”, adierazi du Camarerok. Hain zuzen ere, prestakuntza fisiko egokia izatea funtsezkoa da denboraldi on bat egin ahal izateko.

**Azkenen hasiera**

Txingudiko lehen taldeak denboraldia porrotarekin hasi bazuen ere, horrek ez denboraldia baldintzatuko. Bigarren partiduan jada irundarrak joera aldatzeko gai izan dira eta. “Porrotak erakutsi digu mailaz jaitsi arren, partidu guztiak ez direla errazak izango”, adierazi du Iñigok. Lehen norgehiagokan espero gabe lezioa ikasita, entrenatzaileak nahiko luke taldeak txipa aldatzea eta irabazteko gaitasuna ere badutela barneratzea. Maila txikiagoan jokatzeak ez du esan nahi, talde edo partidu zailik topatuko ez dutenik. Entrenatzaileak gaineratu du, “ezin gara zelaira sartu partidua irabazia dugula pentsatuz”.

Denboraldi berrian sailkapenean gora egin nahi du Zaisa Txingudik eta, ahal izatekotan, maila igoera bere egin nahi du. Iñigo Camarerok ohartarazi duenez, “inoiz ez da erreza maila igoera bat lortzea”. Hala ere, beraien buruan helburua argi dago eta horretan sinesten dute.

**Gaztetxoenak ere martxan**

Lehen taldeaz gain, Txingudi Errugbi Klubak jokalari gazteagoak ere errugbian aritzeko trebatzen ditu. Markel Moratinos Sub16 taldeko jokalaria da eta urriaren hasierarekin bere taldeak lehen partiduak jokatu ditu. Ligako lehenengoan La Riojaren aurka neurtu zituzten indarrak, baina garaipenak ihes egin zien. “Uste dut aurretik jokatutako partiduekin alderatua plakatzeak eta markaketak hobetzea lortu dugula”, adierazi du Sub16 taldeko jokalariak.

Hortaz, Markel Moratinosek partiduetan entrenamenduetan egindako lanaren emaitzak ikusten ditu: “aurreko partiduekin alderatuta, hobekuntzak nabariak dira”. Denboraldira begira, Moratinosek taldea gai ikusten du asko entrenatuta partidu asko irabazteko. “Lagunak gara, gure arteko komunikazioa oso ona da beraz, eta gainera talde orekatua gara”, gaineratu du jokalari gazteak.

Maila bat gorago, Sub18ko jokalariak daude eta beraiek ere denboraldi berria hasia dute. Asier Bravo aipatutako taldeko kidea da eta beraientzat ere hasiera porrotarekin batera iritsi zaie, ez baitzuten Zarautzeko jokalariak mendean hartzea lortu. “Taldean jokalari gutxi gara eta Uribealdeako jokalari batzuekin elkartu gara”, adierazi du Asierrek. 18 urtez azpiko taldeko jokalariak azaldu du taldea osatzeko zailtasunak dituztela, jende asko ez baita errugbia probatzera animatzen. Bravok gaineratu du, “nik nire lagun bat ekarri dut eta edonor animatzen dut gurekin jolastera etorri dadin”. Errugbia gustuko duzun edo ez jakiteko hori probatzea funtsezkoa dela adierazi du Asier Bravok.

Denboraldiko erronkez galdetuta, Asier Bravok azaldu Uribealdeko jokalariekin batera jokatuko duten lehen denboraldia izango dela aurtengoa. “Dena den, elkarrekin jokatzen hasteko gogo handia daukagu eta taldera batzen zaigun edozeinekin dena emateko prest egongo gara”, gehitu du Bravok Txingudi errugbi klubak orokorrean denboraldiko erronkei aurre egiteko duen gogoa laburbilduz.

Sara Villasante, korrikalaria:

# “Niretzat atletismoa hobby bat da eta nire helburua disfrutatzea da”



**Sara Villasante Bidasoa Altetiko Taldeko korrikalaria da. Azkenaldian emakumeen sailkapenean Txingudi Korrika irabazteaz gain, Donostian egiten den hiru hondartzetako lasterketa irabazi du. Etxeko probetan aritu ostean, orain Valentziako 10 kilometroetako lasterketaren prestaketan zentratua dago. Kirolaria bere hurrengo kirol hitzorduez eta erronkez mintzatu da.**

**Azken lasterketetan emaitza onak lortu dituzu, Txingudi Korrika irabazteaz gain, hiru ondartzen lasterketa irabazi duzu?**

Bai, egia esan oso pozik nago. Hiru Hondartza eta Txingudi Korrika lasterketak oso gogoko ditut. Gainera, bietan denbora ona lortu nuen eta eguraldi ona egin zuen.

**Txingudi Korrikan, emakumezkoen lehen postuaz gain, lasterketako errekorra lortu zenuen, ezta?**

Bai. Gainera, aurten lasterketa lehen aldiz homologatu dute eta berezia da nire klubak antolatzen duelako. Hendaian hasten da, Irundik igarotzen da eta Hondarribian amaitzen da. Ez da 10 kilometroko marka egiteko lasterketa aldapa asko dituelako, baina oso ibilbide polita du. Hortaz, helburuak beste batzuk dira, lasterketaz gozatzea zure jendeaz inguraturik. Lasterketan zehar oso ondo aurkitu nintzen eta errekor berria lortzeko aukerak ikusi nituenez horretan saiatu nintzen. Beraz, dena primeran atera zen.

**Donostiakoa izanda ere, Bidasoko eskualdearekin lotura estua duzu.**

Txiki txikitatik Bidasoako taldeko atletekin harreman oso ona izan dut eta urte batzuk geroago, 14 urterekin, talde horretan entrenatzen hasi nintzen. Ibon Muñoz izan dut entrenatzaile eta niretzako bigarren aita bat bezala da. Irunen Donostiarra naizela gogoratzen didate eta Donostian aldiz, ia Irundarra naizela.

**Orain hurrengo lasterketen prestaketan zentratuko zara?**

Orain pista estaliko denboraldira begira nire helburua da urtarrilean Valentziako 10 kilometroko lasterketa egitea, horrela distantzia horretan nire marka pertsonala jaisteko. Donostiako 15 kilometroko lasterketan lagun batekin parte hartuko dut, baina ez naiz marka bila joango, lagunari kilometroa 4,15ean egiten lagunduko diot. Oraindik ez dut beste lasterketarik buruan, baina ziur besteren batean parte hartuko dudala.

**Txapelketek ere entrenamendu bezala balio dute zuretzat?**

Bai, horrela da. Txapelketak entrenamenduak bezalakoak dira eta batzuetan emaitza oso onak lortu ditzakezu, entrenamenduetan bezala. Oraingoan bide batez lagun bati laguntzea erabaki dut. Niretzat atletismoa hobby bat da eta nire helburua disfrutatzea da. Horrela, lasterketaren aitzakia hartuta nire lagunarekin ondo pasatzeko aukera baldin badut eta gero bazkaltzera baldin bagoaz pozik gerazen naiz.

**Atletismoak bakarkako kirola dela ematen du, baina ondo pasatzeko aukera ere badago, ezta?**

Azken batean, lasterketaren egunean zuk bakarrik parte hartzen duzu, zure dortsalarekin. Baina, entrenamenduetan edo beste edozein unetan arreta ipintzen baduzu beti ikusiko duzu taldeko lana. Serieak egiterakoan batak besteari laguntzen diogu edo baita lasterketan zehar ere. Gainera, lasterketan bertan zure taldeko jendea edo lagunak egon ohi dira eta horiek animo asko ematen dizkizute. Nik normalean bakarrik entrenatzen dut, baina horrek ez du esan nahi bakarrik sentitzen naizenik.

**Zeintzuk dira zure helburuak aurtengo denboraldirako?**

Printzipioz Valentziako lasterketan zentratuko naiz. Martxoan Laredon 34,11 denbora egitea lortu nuen. Beraz, Valentzian denbora hori jaitsi ahal izatea gustatuko litzaidake eta denbora hori jaisteko entrenatuko dut. Gero ikusiko dugu zer ematen duen denboraldiak. Argi dut aire zabaleko denboraldian parte hartuko dudala, izan ere gure kluba sailkapenean maila gorenean dago eta argi dut beraiekin batera lehiatuko naizela, emaitza onenak lortze aldera. Urtarriletik udara ez dakit zer egingo dudan, ea deskantsu bezala pare bat aste hartuko ditudan edo zer. Valentzian gertatzen denaren arabera erabakiko dut hori. Pistan ziur lehiatuko naizela eta taldekako txapelketetan parte hartuko dut. Indarrak eta burua orain Valentzian zentratuak ditut.

# Herkulesen abenturak

Herakles eta Estinfaloko hegaztiak. Liriako mosaikoa (Valentzia). **M.A.N. Madril**

Herakles Zerbero txakurra ontzi batean ezkutatu zen Euresteo izutuari erakusten (Caeren topatua, Cerveteri). **Louvre Museoa, Paris**

**Modu batean zein bestean, denek izan dugu noizbait Herakles heroiaren berri (erromatarrek Herkules deiturikoa). Oiasso Museoa familian eta modu dibertigarrian ikusteko "Herkulesen 12 probak" deituriko aplikazioa dugu eskura. Honen bitartez, museoa enigma batzuk argituz eta hamabi proba gaindituz ezagutzeko aukera dago. Baina, fikziozko film eta marrazki bizidunetatik haratago, ba al dakizu nor zen Herkules? Artikulu honetan heroi honen bizitza labur azaltzen saiatuko gara.**

Heraklesen abenturen zikloak Egeoko eta ekialdeko mitologien eragina dauka. Ziklo hau hainbat bertsio ezberdinetan kontserbatu da, zenbaitetan hauen artean kontraesan ugari daudelarik. Dena den, bertsio denek bat egiten dute Herakles argibotarra eta Perseidatarren sendiko (alegia, Perseo heroiaren ondorengoak) kide zela esatean. Hala, tradizioaren arabera, Tirinto hirian Alkmena eta Anfitrion deituriko bikotea bizi zelarik, Zeus jainkoa Alkmenarekin oheratu zen Anfitrion kanpoan zegoela aprobetxatuz. Azken hau bueltatzean, bere emazte Alkmenarekin oheratu eta hilabeteak pasata emakumeak bi seme izan zituen, Herakles, indar handikoa eta Zeusen seme zena, eta Ifikles, Anfitrionena.

Zeusek jainko-jainkosen artean jaiotza honen berri eman zuen, haurra perseidatarren artean indartsuena eta nagusi izatean Argoseko errege izanen zela aditzera emanez. Hera, Zeusen arreba eta emaztea zena, guztiz jeloskor jarri eta, arrakastarik gabe, Herkules haurraren egunerokotasuna oztopatzen eta hura hiltzen saiatu zen.

Herkules nerabea Tebas hiri greziarrean hezi zen eta gaztetatik geratu ziren agerian borroka eta gerrarako zuen abilezia. Dena den, arte ederretan ez zen batere trebea eta erraz amorratzen zen, behin bere musikako irakaslea hiltzera iritsi zelarik. Ondorioz, Anfitrionek ardiak zaintzera zigortu zuen 18 urte bete arte. Behin Herakles artzain gisa mendian zegoela, Tespis erregeak inguruetan zebilen Ziterongo lehoia ehizatzeko eskatu zion. Ehizak 50 egun iraun zuen eta heroiak erregearen jauregian egiten zuen lo. Epe horretan, Tespisek bere 50 alabak Herkulesekin oherarazi zituen guztiak haurdun utziz. Denborarekin, seme hauekin Sardinian kolonia bat sortu zen. Gerora, Heraklesek Tebas hiriari Orkomenokoa militarki garaitzen lagundu zion.

Sari gisa, jainkoek arma berriak oparitu zizkioten eta Tebasko Kreon erregearen Megara izeneko alabarekin ezkondu zen. Ordea, Hera jainkosak sorrarazitako amorrazio eraso batean, Heraklesek Megararekin izandako hiru semeak eta Ifiklesen biak hil zituen. Bere onera itzulita eta damuturik, heroiak Delfoseko Orakulura jo zuen aholku bila. Azken honek bere etsai Euresteogana, Tirinto eta Mizenasko erregearengana joateko gomendatu zion eta erregeak 12 proba ezarri zizkion.

**12 probak**

1.- Nemeako lehoi-munstroa ehizatzea.

2.- Lernako Hidra hiltzea.

3.- Bere abiaduragatik ospetsua zen Zerineako oreina ehizatzea.

4.- Erimantoko basurde erraldoia harrapatzea. Misio honetan Heraklesek zentauro batzuekin hartueman bat izan zuen eta hauetako zenbait hil zituen.

5.- Augias erregearen ukuiluak egun bakar batean garbitzea. Bukatzean, Augiasek bere ganaduaren heren bat entregatzearen promesa hautsi zuenez, Heraklesek erregea eta bere semeak hil zituen.

6.- Estinfaloko hegazti haragijaleak ehizatzea.

7.- Kretako zezen erraldoi basatia otzantzea.

8.- Traziako errege zen Diomedes hil eta bere behor haragijaleak lapurtzea.

9.- Amazonen erregina zen Hipolitaren gerrikoa, Ares jainkoak oparitutakoa, lapurtzea.

10.- Gerion munstroaren idiak lapurtzea.

11.- Hesperideen lorategiko urrezko sagarrak lapurtzea. Abentura honetan Prometeo askatu zuen.

12.- Infernuko atea zaintzen zuen Zerbero hiru buruko txakur-munstroa harrapatu eta Euresteogana eramatea.

Hamabi proba hauek arrakastaz beteta, Herkulesek munduan zehar abenturaz abentura jarraitu zuen, hauetako batean Troia hiria ere zakuratuz. Azkenean, Neso zentauroaren trikimailu baten bitartez, heroia pozoitua izan zen eta minaren minez, heriotza besarkatzea erabaki zuen. Hiltzean, jainkoek Herakles Olinpo mendian onartu zuten, hilezkortasuna lortuz eta bera ere jainko bilakatuz.

Herkulesekiko gurtza mundu greko-erromatarrean oso zabaldua zegoen eta eraikin ugari jaso ziren bere omenez, garrantzitsuena Erromako Ara Maxima izanik. Zenbait jai erlijiosotako protagonista ere bazen, Herculi Musarum (ekainak 30) eta Herculi Invicto (abuztuak 12) esate baterako, eta gerlari, kirolari eta gimnasioen jainko babesle kontsideratzen zuten.

**Jokin Lanz**

# EL PILAR LH3

Ane Barriga 3.A




Telmo Jaimerena 3.B

# DENBORA-PASAK

**7 hitz: Lekaleak**

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G | W | W | J | H | Z | C | D | I | L | I | S | T | A |
| C | O | U | E | E | Q | B | N | P | I | L | S | W | Y |
| I | H | A | V | Z | M | C | Q | Y | L | K | T | B | U |
| G | A | A | L | P | A | P | A | C | R | E | Y | M | Q |
| K | I | Q | K | X | G | V | J | T | F | U | J | Y | Q |
| G | I | T | L | I | V | O | V | R | Q | E | F | B | K |
| N | A | B | B | D | D | H | E | O | U | S | G | R | T |
| F | W | R | A | I | A | E | X | L | E | O | B | A | W |
| Z | Q | O | B | B | F | L | R | D | W | J | M | X | I |
| M | I | G | A | A | A | O | Z | K | C | A | J | C | M |
| Q | D | R | G | J | N | R | Z | Q | W | F | D | S | L |
| D | M | Z | H | B | G | T | R | D | T | Q | Q | B | W |
| U | I | L | A | R | O | D | Z | U | Q | H | T | U | S |
| I | U | R | R | C | U | Z | F | U | N | W | Y | F | Q |

Dilista, garbantzu, baba, alpapa, soja, ilar, babarrun.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 8 | | | | | 3 | | |
| 2 | | | | | | 5 | | 8 |
| | 4 | | 5 | | 7 | 9 | | |
| | | 3 | 8 | 7 | 6 | | | |
| 1 | 6 | | | 4 | 5 | | | |
| 8 | | | 2 | | | | | 3 |
| 7 | | 6 | | | | | | |
| | | 8 | | | 2 | | | 4 |
| | 5 | 2 | 6 | 3 | | | 8 | |

ESTUDIO FOTOGRAFICO GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100.2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

# EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

## Neskame zegoen neskatxa baten kontua

Neskatxa bat joan omentzen serbitzera.

Eta eltzia nastutzen omentzuen txiri batekin. Eta itxeko andriak eintzuen ikusi eta etzitzaion gustatu eta ensatziyon:

– Jesus, neskatxa, au eltzia onen burruntzali usaya!

Eta esantziyon neskatxak:

– Ez itxeko andria. Txikiriyakiñ nasten dut.

– O! orduan fuera nire itxetik! Tori dirua.

Eta neskatxak esantziyon katuari:

– To pezeta bat.

Eta itxeko andriak esan ziyon:

– Katuari zertako pezeta ematen diyozu?

– Eztut zorrik utzi nai. Beorrek zertako pagatu nau ni?

– Lan ein duzulako.

– Nik ere bat, orregatik ematen diyot. Amaika platera garbitu nau!

**Irungo S.R.A. andereari jasoa (1959-VII-29)**

**<<Iñude lior kastillana batek esana, Santiago Fernandez ´en itzian zegona>>. (El Bidasoa, 1959-X-3).**

# LEKAENEA LH6

# Irunen LGTBI kolektiboa gizarteratua dagoen arren, lana egiteko dago oraindik

**Maite Azabal eta Uxue Diez Guiralek Gazteartean Bekaren bitartez Irungo LGTBI gazteen errealitatea ikertu dute. Behin ikerketa amaituta, kolektiboak Irunen bizi duen egoeraz hausnartu dute eta hobetu beharrekoak atzeman dituzte. Ikerlariek azterketa egiteko lau eremu bereizi dituzte: Osasun zerbitzuak, hezkuntza, aisialdia eta kultura eta espazio publikoa.**

**Zeintzuk izan dira ikerketak azaleratutako emaitzarik esanguratsuenak?**
**Uxue:** Titularren bat ematearren, ikusi dugu Irunen LGTBI kolektiboak inklusioa duen arren, oraindik diskriminazio egoerak gertatzen direla eta batzuetan oztopo bat direla.

**Maite:** Konkretuki, Irungo gazteen arabera LGTBI kolektiboa gutxien integratuta dagoen eremua hezkuntzarena da. Irunen LGTBI pertsonak gizarteratuta daudela esateko bi egoera gertatu behar dira: diskriminaziorik ez egotea eta Irungo erakundeen babes esplizitua izatea. Bestalde, gure ikerketan LGTBI pertsonen eskariak jaso ditugu eta erdiak baino gehiagok uste du Irunen kolektibo horretako pertsonentzako topaguneak bultzatzea ezinbestekoa dela.

**Uxue:** Lortutako beste datu garrantzitsu bat zera da, LGTBI pertsonen eta pertsona ziseterosexualen artean desberdintasunak daudela inklusibitatearen pertzepzioari dagokionez. Pertsona ziseterosexualek uste dute LGTBI kolektiboa Irunen integratuago dagoela, kolektibokoaren barneko jendearen usteekin alderatuta.

**Jendea ikerketan parte hartzeko prest azaldu da?**
**Maite:** Bai, Irungo biztanleak uneoro gure galderei edo eskaerei erantzuteko prest agertu dira. Irungo gaztelekuko profesionalek prozesu osoan zehar laguntza eskaini digute eta eskertzekoa da. Horretaz gain, oso eskertuak gaude Irungo Gazteria zerbitzuko teknikariaren eta Irungo eskolen kolaborazioa izan dugulako. Badakizu zeinen zaila den horrelako ikerketentzako parte-hartzaileak topatzea, egun galdeketak edonondik iristen zaizkigulako.

**Gazteek gaiarekin lotutako informazio nahikoa zutela nabaritu duzue?**
**Uxue:** Ikusi dugu jende batek baduela gaiari buruzko diskurtso eta ezaguera orokor bat. Dena den, hutsune batzuk nabaritu ditugu kolektiboko errealitate batzuk oso ezezagunak direlako oraindik. Adibidez, trans errealitatearen inguruko ez ezagutza handia nabaritu dugu. Bestetik, osasun arloari buruz gutxi hausnartu dutela ikusi dugu, baina normala da esperientzia falta kontuan hartuta.

**Irungo Udalak kolektiboarekin loturik eskainitako zerbitzuak ikertu dituzue. Zergatik?**
**Maite:** Bi arlo konkretu aztertu ditugu. Batetik, udalak LGTBI kolektiboarekin zuzenean loturiko zerbitzuak, eta parte-hartzaileen % 84ak esan du ez dituela ez ezagutzen eta ezta erabiltzen ere. Zerbitzuak ezagutzen dituen 15aren artean, bi pertsonak bakarrik onartu dute zerbitzu horiek erabili izana. Era berean, Irungo Udaleko berdintasun zerbitzuak ikertu ditugu eta datuak antzekoak izan dira, % 81ek ez baitituzte berdintasun zerbitzuak ezagutzen. Beraz, desoreka argia ikusten dugu Irungo Udalak dauzkan eta gazteek erabiltzen dituzten zerbitzuen artean. Onuragarria izango litzateke zerbitzu horien hedapena lantzea.

**Uste duzue Irundik kanpo, egungo errealitatea guztiz bestelakoa dela?**
**Maite:** Jakin badakigu Irungo emaitzak ezin direla inguruko beste herrietara estrapolatu, beraien errealitatea, besteak beste, gizarte politikengatik edo jendearen bizimoduarengatik baldintzatuak egon daitezkeelako. Ikerketako parte-hartzaileek ere horixe adierazi digute. Hala ere, hezkuntza eta osasun arloan lortutako emaitzak nahiko antzekoak izan dira beste hirietan lortutakoekin.

**Zergatik bereizi dituzue lau espazio ikerketa egiterakoan?**
**Maite:** Bereizketa horren atzean azalpen bat dago. Ikerketa hasterakoan ohartu ginen lotura bikoitza dagoela gazteen eta nerabeen parte hartze zibikoan. Adin txikikoak direnez, itxaroten dagoen herritar baten estatusa dute eta gainera, LGTBI kolektibokoak izanda, gizarte talde txikitu bateko kide direla ulertzen da. Ondorioz, baliabideak lortzeko zailtasunak izan ditzakete eta horiek hiriko zein eremutan gertatzen diren identifikatu nahi genuen.

**Uxue:** Lau eremu horiek literaturako iturri konkretuetatik datoz. Eremu berdinak erabiliz Irungo errealitatea beste hirietakoarekin alderatzeak abantailak dauzka. Datu orokorrak izanda zailagoa da datuetatik ekintza zehatzetara pasa ahal izatea. Banaketak aldiz, eragin beharreko eremuak erakusten dizkizu zuzenean.

**Arloak aztertuta, emaitza esanguratsurik topatu duzue?**
**Maite:** Bi kalkulu egin ditugu. Lehenengo LGTBI kolektiboaren pertzepzio orokorra nolakoa den kalkulatu dugu eta gero berdina egin dugu, baina arloak bereizita. Horrela, galdetegiko itemen bataz bestekoa kalkulatu dugu. Dena 5eko eskalan kalkulatu genuen eta bataz besteko puntuazioa 3,39koa izan da, beraz, batazbestetik gora dago.

**Uxue:** Batazbesteko altuena espazio publikoak lortu du, beraz, hori da gazteen ustez kolektiboa hoberen integratua dagoen espazioa. Hezkuntza eremuak berriz, mediarik baxuena lortu du eta lanketa gehien eskatzen duena da.

**Aurretik esandako guztiarekin, zer ikusten duzue hobetzeko?**
**Maite:** Hezkuntza eremuan asko dago egiteko eta prestakuntza espezifikoa eskaintzeko beharra ikusten dugu. Bestetik, ikusten dugu irakasleen papera lantzeko beharra dagoela. Aisialdi eta kultura esparruetan ere LGTBI errealitateen errepresentazioa funtsezkoa iruditzen zaigu. Bide batez, Irunen topaguneak sustatzea oso lagungarria izan daiteke.

**Uxue:** Osasun arloan ikertu beharreko esperientziak nabaritu ditugu. Hala ere, nabarmendu nahiko nuke datu hauek ez dutela soilik LGTBI kolektiboaren barnean geratu behar, gizarte osoaren pertzepzioari dagozkio eta garrantzitsua da gaiaren zama LGTBI kolektiboko kideek bakarrik eraman ez dezaten.

irun
www.irun.org/igazte
gazte informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

## Beldur Gaua

Martindozenea Gaztelekuak Beldur Gaua antolatu du urriaren 28tik 29rako gauean. Ekintza arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta hurrengo eguneko 12:30etan amaituko da.

Gaztelekuko hezitzaileekin batera, ekintzan izena eman duen gazteak beldurrezko Escape room batean parte hartuko du. Jolas hau gaztelekura etortzen diren gazteek antolatu dute. Ondoren, afaldu baino lehen denbora librea izango dute oheak prestatzeko eta eroso jartzeko. Afaldu ondoren, beste jolas bat egingo dugu eta beldur istorioak kontatzeko tartea izango dugu. Hurrengo egunean, elkarrekin gosaldu ondoren, makilaje fantastikoko tailerra izango dute.

Ekintza honetan izena emateko azken eguna urriaren 25a da. Irunen erroldatutako gazteek lehentasuna izango dute ekintzan parte hartzeko. Gainera, ekintzan izena ematerakoan bi egunetan parte hartzeko konpromisoa hartzen da.

Izen ematea gazteleku@irun.org helbide elektronikora edo 690706471 Whatsapp zenbakira idatziz egin beharko da, Gaztelekuaren webguneko inprimakia bidaliz.

## Gazteartean Fest

## GazteARTEan TALKS

gazte Talks ARTEan

GazteARTEan TALKS berriketa irekiaren formatuko topaketa kolektibo bat da (TED talk-aren estilokoa).

Topaketako parte-hartzaileen eta Irungo gazteen esku-hartzearen bidez, ideiak, iritziak eta sentsazioak trukatzeko gunea sortu zen.

Orain arte era honetako 4 ekitaldi antolatu dira: "Gazteak eta Kirola", "Eta zuk, aurrera jarraitzen duzu?", "Berrasmatuko al dugu geure burua?" eta "Pasioa lanbide". Etorkizunean asmoa dago formatu bereko topaketa gehiago antolatzen jarraitzeko.

### Hurrengo ekitaldia

Zein da Irunen LGTBI+ gazteriaren egoera? Ba ahal dago espazioren bat mugimenduarentzako?

Urriaren 29an, Gaztearteanen Talks: IRUN LGTBI+ GAZTERIA: BA AL DAKIGU ZER DAGOEN? mahai ingurua izango dugu non Irungo LGTBI+ egoerari buruzko hainbat gai jorratuko ditugun. Bertan, Lamiaren Oihua, Garazy La Fatasy eta Alicia Kiss izango ditugu Irungo egoeraz hitz egiteko.

Gaiaren inguruan hitz egin nahi badezu animatu etortzera, sarrera irekia izango da.

**Non:** Palmera Montero 2. aretoa

**Ordua:** 11:00tan

**Info+:** @gazteartean_irun | 656794372 | www.irun.org/gazteartean

## Gazte aurrekontu irekiak

Badira zenbait urte Irungo Udala herritarrak bere ekimen eta proiektu nagusiei buruz erabakitzeko prozesuetan parte-hartzea sustatzeko lanean ari dela. Martxan dagoen aurrekontu partizipatiboen barnean gazteei zuzendutako prozesu bat dago. Gazte prozesuak 200.000 euroko aurrekontua izango du eta 16 urtetik 30 urtera bitarteko gazte irundarrek izango dute prozesuan parte hartzeko aukera.

Prozesu orokorrean bezala, proposamenak jasotzeko hainbat bide daude. Batetik, Online proposamenak aurkezteko epea, irailaren 19ra arte zabalik egongo dena. Bestetik, hiriko zenbait ikastetxeetan proposamenak aurkeztu ahalko dira. Gainera, hiriko auzoetan informazio karpak jarriko dira urriaren 24ra arte, udal webgunean kontsultatu daitezkeen egun eta ordutegietan. Proposamen finalistak berriz, urriaren 20tik 26ra bozkatuko dira.

Proposamenak jasotzeko hainbat bide erabiliko dira. Hamabi proposamen online jasoko dira, lau auzoetan instalatutako partaidetza karpetan, bi Udaleko Gazteria Zerbitzuak egingo ditu eta beste bi Eskolako Agenda 21 ekimenak.

Bozketa Irun Txartela erabiliz egin beharko da. Irun Txartela ez dutenek aurrez aurre eman beharko dute botoa, Herritarren Arreta Zerbitzuen udal bulegoetan, hilaren 15etik 19ra bitartean, eta, horretarako, aurrez, hitzordua eskatu beharko dute, 010 telefonora deituta. Parte hartzaileek hogei proposamenen artean aukeratu beharko dute.

Aurrekontu Partehartzaileak
IRUN 2023
Zure hiria da. Irudika ezazu!

## Udal kiroldegietako eskaintza berezia

Udalbatzak kontratuaren esleipena abuztuan onetsi ondoren, Irungo Udaleko Kirol arloak jakinarazi du Artaleku eta Azken Portu udal kiroldegien kudeaketa eta ustiapena BPXPORT XXI SLU enpresaren esku egongo dela datorren urriaren 1etik aurrera.

Horrekin batera, urriaren 1etik 24ra bitartean, kanpaina bat egingo da alta eman eta urteko kuota aurretik ordainduta 12 hilabete irauteko konpromisoa hartzen duten pertsonentzat; izan ere, dohainik matrikulatu ahal izango dira eta hilabete bateko deskontua izango dute urteko kuota horretan. Horrela, abonamendu mota ohikoenean, hau da, erroldatutako helduen abonamenduan, 100 euro aurreztuko dira: matrikularen 77,65 euroak eta abonunamendu-kuotatik 22,35 euro. Ordaintzen diren gainerako abonamenduetan, 54,34 eurotik aipatutako 100 euro horietara bitartean aurreztu ahal izango da.




# URRIAREN

## 19an

### Hitzaldia

**Zer:** Etxean energia-faktura, energia-eraginkortasuna eta berriztagarriak murrizteko aholkuak emateko hitzaldia Rafa Irastorzaren eskutik.

**Non:** Palmera Montero Guneko 2. aretoan.

**Ordua:** 19:00etan.

## 19an

### Haurrentzako ipuin kontaketa

**Zer:** 4 eta 7 urte bitarteko haurrentzako ipuin kontaketa.

**Non:** CBA liburutegian.

**Ordua:** 17:30ean.

**Sarrera:** Doan.

**Izena emateko:** Ekintzan parte hartu ahal izateko beharrezkoa da 943505421 zenbakira deitzea.

## 22an

### Kontzertua

**Zer:** Oiasso kameratak gerrari eta bakeari buruzko kontzertua eskainiko du.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 19:00etan.

**Prezioa:** 5 euro.

**Sarrerak:** Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

## 27an

### Helduentzako ipuin kontaketa

**Zer:** CBA liburutegiak helduentzako ipuin kontaketak antolatzen ditu helduen irakurzaletasuna sustatzeko.

**Non:** CBA liburutegian.

**Ordua:** 19:00etan.

**Sarrera:** Librea.

## 29an

### Zinema

**Zer:** 18.19 zinema eta animazio programaren saio berria, bertsio originalean emango diren pelikulekin eta gaztelerazko azpitituluekin.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 18:00etan.

**Prezioa:** 5,50 euro.

## 30ean

### Antzerkia

**Zer:** "Mieda de ciudad" antzezlana eskainiko du Olatz Gorrotxategi konpainiak.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 19:00etan.

**Prezioa:** 8 euro.

**Sarrerak:** Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

## Denbora-pasen emaitzak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 8 | 5 | 9 | 2 | 4 | 3 | 1 | 7 |
| 2 | 9 | 7 | 1 | 6 | 3 | 5 | 4 | 8 |
| 3 | 4 | 1 | 5 | 8 | 7 | 9 | 2 | 6 |
| 5 | 2 | 3 | 8 | 7 | 6 | 4 | 9 | 1 |
| 1 | 6 | 9 | 3 | 4 | 5 | 8 | 7 | 2 |
| 8 | 7 | 4 | 2 | 1 | 9 | 6 | 5 | 3 |
| 7 | 1 | 6 | 4 | 9 | 8 | 2 | 3 | 5 |
| 9 | 3 | 8 | 7 | 5 | 2 | 1 | 6 | 4 |
| 4 | 5 | 2 | 6 | 3 | 1 | 7 | 8 | 9 |

electric systems ®

# Electric Systems-ekin zerbitzu elektriko guztiak eskura izango dituzu

- Instalazio elektrikoak
- Neurrira egindako argien azterketak
- Domotika eta automatismoak
- Bideozaintza eta alarmak
- Ahotsa eta datuak
- Proiektuak eta legeztatzeak
- Mantentze lanak
- Ekitaldiak

mrelectricsystems@gmail.com - 669 302 312